

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko maiatzaren 8a. IX. urtea. 2.344. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## la milioi bateko ordainketa egin behar du Villabonako Udalak

Jabego publikoa duen Villabona Lantzen SAK Eguzki enpresari 945.479,39 euro ordaindu behar dizkio, behin betiko epaiaren arabera

Flemingo eremuan egindako eraikuntza lanengatik izan da auzia; udalak lokalak eta garajeak salduko ditu zorrari aurre egiteko 02

**Bide Berrik diru publikoarekin egin duen kudeaketa salatu du LABek**

Dirua era egokian ez erabili izana gaitzetsi du sindikatuak, eta langileen subrogazioa eskatu du 03



**Aimar Irigoienek 21 aldiz jaso du 160 kiloko zilindro zaharra**

Adunako Gorostidi Harriaren VI. Txapelketan ez da ezustekorik izan 07

**Laskorain taldea 2 B mailatik jaitsi da**

Denboraldiko azken partida, Zaragozako Ebrosalaren aurkakoa, 9-0 galdu du 07

→ **XIV Orduak prestatzen.** Berastegin bi ibilaldi izan ziren herenegun; Basurde elkarteak antolatutako XX. Ibilaldi Neurtua, eta guraso elkartearen mendi proba. Bien parte hartzaileak batuz 388 mendizalek izan zuten maiatzaren 27an izango den XIV Orduak probarako prestatzeko aukera. Basurde elkarteok «oso gustura» agertu dira parte hartzaile kopuruarekin eta baita egindako aurreikuspenak bete direlako. 05

## Giro ederrean bukatu dira Orexako eta Asteasuko Elizmendiko jaiak

Era guztietako ekitaldiz betetako egunak izan dituzte orexarrek eta asteasuarrek pasa den asteburuan; San Isidro eta Korpus jaiak izango dira eskualdeko hurrengo festarako geltokiak 04



Orexan herri kirol saioa izan zuten herenegun arratsaldean, eta Asteasun Laja eta Landakandaren saioa. E. SARASOLA

## Gizonezko bat atxilotu dute sexu erasoak egotzita

Villabonan bi emakumezko bortxatzen saiatu dela leporatzen diote; udalak «gogor gaitzetsi» du gertatutakoa, eta salatzeke deia egin du 02

**FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK**  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

TOLOSA  
Kondeko Aldapa, 5  
943 - 67 00 40

VILLABONA  
Larrea Polg., 34 - 1  
943 - 69 48 73

# Villabonako Udalak ia milioi bat euro ordaindu beharko dizkio Eguzki enpresari

Flemingo lanen inguruko behin betiko epaia Villabona Lantzen enpresa publikoaren aurkako izan da

**Enertiz Maiz** Amasa-Villabona

Jabego publikoa duen Villabona Lantzen SAK Eguzki enpresari 945.479,39 euro ordaindu beharko dizkiola ebatsi du epaitegiak behin betiko epaian. Auzia aurretik Flemingo eskola zegoen eremuko egun Malkar plaza-lanengatik izan da, eta orain zor horri Villabonako Udalak egin behar dio aurre. Galder Azkue alkateak azaldu duenez, udal lokalak eta garajeak salduz egin nahi zaió aurre ordainketari.

Aurretik, 2010eko azaroaren 15ean, kontrako epaia jaso zuen Villabona Lantzenek, eta horri helegite jarri zion. Orain helegite horren erantzuna etorri da, eta berriro kontrakoa izan da. Ostiralean eman zuen jakitera Azkue alkateak, udaletxean, epaitegiaren erabakiaren berri. Dagoeneko sententzia irmoa denez, «herritarren aurrean gardentasunez» gaia azaldu nahi izan zuen.

Azken epaia ezagutu dutenetik, udalak, hiru hilabeteko epea du ordainketa nola burutuko duen zehazteko. Krisi egoera tarteko, «Villabona Lantzenek ez dauka dirurik, eta udalak duen higiezin multzoa (lokalak eta garajeak) ezin du bat batean dirutan bihurtu», nabarmendu zuen Azkuek.

Alkateak gaineratu zuenez, «guk jaso dugun eta udal kudeaketarekin zerikusirik ez duen zerbaít da. Esarbek kudeatu du, baina epai honen ondorioz zerbaít egin beharra daukagu. Nahiz eta, guk zerikusirik ez izan, gaur gaurkoz, gu gara arduradunak. 2012ko abendua bitarte dugu ordaintzeko aukera, eta ahalegin



Galder Azkue alkatea, agerraldiaren une batean. E. MAIZ

guztiak egingo ditugu aurre egiteko», dio Azkuek.

Amasa-Villabonako Udalak 2004ko martxoaren 31n sortu zuen Villabona Lantzen SA merkataritza sozietatea. Honek, udalaren lurrak eta higiezinak herriarren interes orokorraren ikuspegitik kudeatzea zuen xede: babes ofizialeko etxebizitzak, ekipamendu sozialak edota beste instalakuntza publiko batzuk aurrera eramatea, hain zuzen ere.

2004. urtean, esleipen publiko bidez, Esarbe SA enpresari esleitu zitzaion Villabona Lantzen sozietatearen kudeaketa. Esarbek, 2012. urte hasiera arte hartzen du ardura hori. 2012ko urte hasieran Villabona Lantzenek bertan behera utzi zuen kontratua.

2004etik 2012ra Esarbe sozietate anonimoak egindako kudeaketa bi fasetan banatu dute udaltek: alde batetik, 2004 eta 2008 urte artean egindako Flemingo 30 etxebizitza babestu eta azpi lurreko aparkalekuak, eta bestetik, 2008tik 2012ra egindako mantenu lanak.

## Malkar plazako lanak

2006. urtean, Villabona Lantzenek Flemingo eremuko eraikuntza lanak esleitu zizkion Eguzki eraikuntza enpresari. «Behin exekuzio prozesuan, aldaketa garrantzitsuak sortu omen ziren», azal-

du zuen alkateak. Obra garestitu egin zen, eta likidazio fasean, Villabona Lantzen eta Eguzki eraikuntza enpresa ez zirela ados jarri adierazi zuen.

Ondorioz, Eguzki enpresak auzitara eraman zuen Villabona Lantzenen, eta 2010eko azaroaren 15ean bere aldeko epaia lortu zuen eraikuntza enpresak. Villabona Lantzenek epai horren aurkako helegitea aurkeztu zuen arren, ordea, Bilboko Epaitegi Nagusiaren Aretoak atzera bota zuen, epaia berretsiz.

«Hasiera hasieratik prozesua ez da oso normala izan. Gure iritziz behintzat irregularra izan da, eta sententzia ez da bidezkoa. Abokatuak ere ez du ulertzen epaitegiak nolatan eman dion arrazoia Eguzki enpresari. Baina, epaitegiak du azken hitza», gaineratu zuen alkateak.

Epaitegiari, urte amaiera bitartean dirua lortzeko plana aurkeztu dio udalak. Bere higiezinak modu apalean eskualdatuko ditu. «Lokal eta garaje horien salmentak ekarriko luke ordainketari aurre egin ahal izateko diru iturria. Higiezin horien balioa, 1,5 milioi eurotan finkatu dute», adierazi du Azkuek. Eguzki Eraikuntzaren ordezkaritzak aurkeztutako plana onartu egin du. Orain, epaitegiaren erantzunaren zain dago Villabonako Udala.

# Bi sexu eraso egitea leporatuta atxilotu dute gizon bat, Villabonan

Igandean kalean egin zien ustez eraso bi emakumeri; udalak bi eraso hauek «gogor gaitzetsi» ditu

**E. Maiz** Villabona

Ertzaintzak 40 urteko gizon bat atxilotu du Villabonan, bi emakumeri sexu eraso egin diela egotzita. Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak dioenez, kalean egin zien eraso igande gauean, 22:00ak aldera, Arroa auzoan.

Ustez, lehen emakumeari iletik heldu zion, lurrera bota zuen, gainean jarri zitzaion eta sexu ukituak egin zizkion. Ondoren, ihes egitea lortu zuen erasotzak. Villabonako Udalak jakinarazi duenez, atxilotuak «hortik gutxira, 62 urteko emakume bati eraso egin zion, baina honek ere alde egitea lortu zuen».

Lehen biktimak herritar batzuei laguntza eskatu zion, eta haiek SOS Deiak-era deitu zuten. Ertzainek herrian ikusi zuten ustezko erasotzailea, baina honek ezkutatzea lortu zuen. Bizilagunen azalpenei esker erdietsi zuten ertzainek gizonezkoa etxean atzematea. Ustez Arroa auzoan bertan bizi da atxilotutakoa.

Amasa-Villabonako Udalak

«igande gauean gertatutako bi erasoak gogor gaitzesten ditu». Halaber, udalak herriko bi emakumei «bere solidaritatea eta babes» luzatu nahi dizkie. «Orokorrean eta, modu berezian, gure lurraldean emakumeen aurka gertatzen ari diren erasoaldiek herritarren, erakundeen, eta noski, erasotzak diren emakumeen aldetik errefusatzeko tinkoa eskatzen dute», azaldu dute udaletik.

## «Salatzea ezinbestekoa»

«Gertakizun hauek salatzea ezinbestekoa da arazo honi konponbidea emateko», nabarmendu dute udaletik.

«Eraso fisikoak, psikologikoa edota hitzekoa bizi edo ikusten duen edonor, jarri dadila mesedez harremanetan Ertzaintzarekin, Udaltzaingorekin edota Amasa-Villabona Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailarekin», gaineratu du udalak.

«Guztion artean kolaboratu behar dugu, Amasa-Villabona elkarbizitza herri atsegina eta lasaia izate aldera», eskatu dute udaletik. Era berean, eta bukatzeko, «gure eskerrik beroena igandeko erasotzailea atxilotzeko lagungarri izan ziren auzokideei eta herritarrei» gaineratu udalak.

● villabona-aiztondo@hitza.info

## → Laburrak

### Haur eskolan izena emateko aukera dago

**ALEGIA** › Alegiako Haurreskolan 0 eta 2 urte bitarteko haurren izena emateko epea zabalik dago. Azken eguna, maiatzaren 4a, ostirala, izango da. Izena emateko ordutegia, berriz, 13:30etik 15:00etarakoa izango da. Orain izena ematen duten haurrak irailean edo urrian hasiko dira haur eskolan. Informazio gehiago jaso nahi duen edonork, haur eskolara bertaratu eta bertan eskuratu beharko du.

### Atsedena kanpaldian izena eman daiteke

**TOLOSA** › Aurten ere Atsedena udako kanpaldia antolatuko du 8 eta 16 urte bitarteko gaztetxoen artean. Kanpaldia, uztailaren 27tik abuztuaren 5era izango da. Izen emateko 635 746 447 zenbakira deitu behar da maiatzaren 11, ostirala baino lehen.

### Herri Urratsera joateko autobusean izen ematea

**TOLOSA** › Igande honetan, hilaren 13an, Senperen (Lapurdi) Herri Urrats jaia ospatuko dute, Iparraldeko ikastolen alde. Gal-tzaundi Euskara Taldeak autobus antolatuko ditu. Tolosan Zezen Plazatik aterako da, 08.30ean, eta itzulera 19:00etan izango da, Senperetik. Bazkideek 10 euro, eta gainerakoek, 12 euro ordaindu beharko dute. Izena, 943 65 50 04 telefonora deituz eman behar da.

### Euskal Herria-Palestina eguneko txartelak salgai

**ALEGIA** › Larunbatean, Euskal Herria-Palestina Elkartzasun eguna ospatuko da, Alegian. Egun osoko festa izango da, eta 14:00etan herri bazkaria egingo da. Txartelak salgai daude Alegiako Hilarior, Jubilatuen eta Ixkiña tabernetan, eta baita Tolosako Raku tabernan ere. Erosteko azken eguna, osteguna, izango da, eta bakoitzak sei euro ordaindu beharko da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Helduez gain, 10 urtetik beherako gaztetxoek ere duatloian parte hartzeko aukera izango dute. R.CALVO

## Herritarrei begirako XI. duatloia izango da, Javier Urkolaren omenez

Helduen probaren aurretik, gaztetxoek ere kirol jarduera hau ezagutzeko aukera izango dute

### I. Urkizu

«Parte hartzaile mota zabal batengana» iristeko helburuz, XI. Herri Duatloia antolatu du Tolosaldeko Triatloi Taldeak Tolosan, Javier Urkolaren omenez.

Larunbat honetan izango da proba, maiatzaren 12an. Plaza Berriaren jarriko dute boxes gunea: bertan bilduko dira parte hartzaileak irten aurretik; bertan beteko dituzte izen-emateak; bertan utziko dituzte bizikletak eta arropa korrika abiatu aurretik; bertan amaituko dute bigarren eta azken korrika saioa ere. Hitz batean, «duatloia erantzutea» izango da boxes gunea.

1996. urtean errepide istripuz hil zen Javier Urkolaren omenez sortu zen Tolosaldeko duatloia. 1997tik 2002. urtera arte, etenik gabe ospatu zen proba, eta eten

baten ondoren, 2008an Tolosaldea Triatloi Taldeak berriro hartu zuen duatloia antolatzearen ardura.

Hasiera hasieratik, proban ahalik eta herritar gehienek parte hartzea izan da antolatzaileen helburua, eta lehiaren zentzua alde batera utzi nahi izan dute. Horrela beraz, ibilbidea erabat laua izango da aurtan ere, eta distantziak «samurrak». Hasteko, bi kilometroko korrika saioa egingo dute Alde Zaharrean barren, eta jarraian, bizikleta hartu eta Tolosaldeko Anoetarainoko joan-etorrarian 15 kilometro osatuko dituzte parte hartzaileek. Amaitzeko, beste bi kilometro osatu beharko dituzte lasterka.

Gaztetxoek ere, duatloia gertutik ezagutzeko aukera izango dute, Duatloi Festarekin. Horrela, 10 urtera bitarteko gaztetxoek ibilbidea egin ahal izango dute: Plaza Berria, Arostegieta kalea, Atadi kalea, Errementari kalea eta Plaza Berria. Ibilbide hau hiru aldiz burutu beharko dute: korrika lehenik, bizikletarekin gero, eta korrika amaitzeko.

Larunbatean, 16:00etan hasiko

da Javier Urkolaren omenezko XI. duatloia, gaztetxoaren probarekin.

Helduek berriz, 16:30ak arte izango dute izena emateko aukera, Plaza Berriaren, 17:00etan probarekin hasteko. Duatloian bakarka, bikoteka nahiz taldeka parte hartu ahal izango da, eta parte hartzaile bakoitzak 5 euro ordaindu beharko du.

Aurreko urteetan bezala, lasterketa amaitzen denean sari banaketa izango da, baina antolatzaileek hala erabakita, lehen sailkatuen ez dute ordainsaririk izango: «Sari potoloena proba bera osatu ahal izatea eta lagunartean gozatzea izango dira. Hala, kirol sorten zozketak, afarien bat edo besteren zozketak eta Plaza Berriko tabernariaren eskutik luntxa izango dira, horrekin giroa areagotzeko asmoz», azaldu dute Tolosaldeko Triatloi Taldeko antolatzaileek.

Aipatzekoa da, Tolosa eta Anoeta arteko GI-3650 errepidea gutziz itxita izango dela trafikoa erantzat, 17:00etatik 18:00etara bitarte, larrialdi zerbitzuentzat izan ezik.

## LABek adingabeen etxeko langileen subrogazioa eskatu du

Bide Berrik eta Aldundiak «behar adinako kontrolik eman ez izana» salatu du sindikatuak

### I. Urkizu

LAB sindikatuak, Bide Berri enpresak kudeatutako adingabeen etxeko langileen subrogazioa behar direla aldarrikatu du. Honen batera, Bide Berrik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak auzian «behar adinako kontrolik eman ez izana» salatu du sindikatuak.

Pasa den astean jakinarazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, babespeko hogeitamar adingabe beste etxe batzuetan birkokatuko dituela; Tolosaldeko etxeko adingabeak dira tartean.

Adingabe hauek Bide Berri enpresak kudeatzen zituen foru etxebizitzetan bizi ziren. Aipaturiko enpresak behea jo duela eta, 700.000 euro inguruko zorrak ditu Gizarte Segurantzarekin, Foru Ogasunarekin eta baita langileen ere.

### Irailetik honako auzia

LAB sindikatuak azaldu duenez, pasa den irailaren hasieran, era honetako zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresa nahiz elkarteek Gipuzkoako Eskuhartzeko Sozialari buruzko lehen hitzarmenaren soldata erregimena ez aplikatzeko klausula aurkeztu zuten. Honen aurrean, sindikatuak prentziak bilera egitea eskatu zioten Gipuzkoako Foru Aldundiari: «Bilera hartan azaldu ziguten, elkarrekin eta enpresa bakoitzari beren ekonomia egoeraren berri ematea eskatu zieten, hauen ku-

deaketa kontrolatzeko asmoz», dio LAB sindikatuak.

Bide honetan, enpresei ikuskapenak egin zizkieten, eta Bide Berrik 700.000 euroko zorra gainditzuten duela ikusi zuten. «Honi gehitu beharko genioke langileei zor diena», nabarmendu du LABek.

Egoeraren aurrean, Bide Berri enpresa batzordeak eta ELA, LAB eta CCOO sindikatuak, «irmo» eskatu zioten Aldundiari, zerbitzuei eustea: «Kalitatea murriztu gabe, bai eta langile kopurua eta langileen baldintzak ere». Horrela, gaur egun indarrean dagoen hitzarmena babestea izan da sindikatuon helburua.

LAB sindikatuen arabera, ordea, Aldundiak langileei beren lanpostuei eusteko eskaintza egin zien, «baina inolako berrizketa gabe eta dagokien subrogazio eskubideari uko egiteko eskatuz». Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bide Berri enpresak dituen zorren ardura bere gain ez duela hartuko gaineratu du sindikatuak.

Horrela beraz, LAB sindikatuak Bide Berri enpresak «diru publikoak egin duen kudeaketa kaskarra» salatu nahi izan du. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundia ere salatu nahi duela nabarmendu dute, «zerbitzu publiko kudeatzen duten elkarte eta enpresei kudeaketaren inguruan behar adinako kontrolik eman ez izanagatik».

Sindikatu abertzaleak langile guztiak subrogatu behar direla azpimarratu du azkenik, «hitzarmena betez», eta «pribatizatu dituzten gizarte zerbitzu guztiak itzuli behar» direla, erabiltzaileei «kailtatzeko zerbitua» bermatuz.

## Gipuzkoako hondakin bilketa hizpide izango da

Bihar izango da hondakin kudeaketarako lan taldearen hirugarren saioa, 18:30ean

### I. Urkizu

Gipuzkoako hondakin bilketa sistema hizpide izango da bihar, 18:30ean, hondakin kudeaketarako lan taldearen hirugarren

saioan; pleno aretoan izango da saioa.

Gai honen inguruan, hiru hizlari izango dira: Begoña Rodríguez (Zarauzko Udaleko Ingurumen teknikaria), Enrike Enparantza (Sasietako Mankomunitateko teknikaria) eta Olatz Urrutibeasko (Hernaniko udaleko Ingurumen teknikaria).

Aurreko saioko datu guztiak [www.tolosaingurumena.net](http://www.tolosaingurumena.net) webgunean daude herritarren esku-rara.

## Arroila jaitsiera ikastaroa antolatu du Oargik astebururako

### I. Urkizu

Astebururako arroila jaitsiera ikastaroa antolatu du Oargi mendialdeko elkarteak.

Larunbatean, Fagoko arroila jaitsiko dute, eta igandean, berriz, Nafarroako Errokan Arandari

eta Jordan jaitsiko dituzte. Antolatzaileen arabera, ikastaro hau egiteko ez da esperintziarik behar.

08:00etan irtengo dira Tolosaldeko arroila jaitsiera, eta Ixabako Asolaz kanpinean afaldu eta lo egingo dute.

Izena emateko, 688 69 86 42 telefonora dei egin daiteke, eta baita [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidera idatzi ere. Maiatzaren 9a izango da, izena emateko azken eguna.

Materiala behar dutenek, Oargin bertan alokatzeko aukera izango dute.

**Tolosa**



**ILARREK ERE HARRERA ONA**

Kilometro 0 ekimenaren beste saio bat egin zuen larunbatean, Tolosako Zerkausiko larunbateroko azokan, larri tabernakoak aritu ziren eskaldari lanetan. Hain zuzen ere, ilararen ospoa denez, lekukile hau erabili zuten ilarrek saltsan fole eta arrautza gorringoaren prestatzeko. Jende ugari gerturatu zen platera dastatzera. »»»

**Leitza**



**NATUR BIDEAK EZAGUTUZ**

Natur Bideen eguna ospatu zuten herenegun, Plazaolaiko partzuego turistikoak antolatuta. Natur bideak ezagutzera ematea helburu duen ekimenean jende ugari elkartu zen, urtero legez. Aurtengoan, Lekunberrin izandituzte ikitaldi gehienak. »»»

**Anoeta**



**URTEURRENA OSPATZEN**

Anoetao Gaztetxearen 13. urteurrenaren harira, musean aritu ziren larunbatean 10 bikote, eta herenegun, mendi ibilaldia egin zuten. Ostegunean jarraituko dute ekitaldiak, Jon Magic-en saioarekin. »»»

**INFORMATIKO FUTBOLARI INJENIERIA ARRAUNLARI DANTZARI BAT**

INFORMATIKO FUTBOLARI INJENIERIA ARRAUNLARI DANTZARI BAT

INFORMATIKO FUTBOLARI INJENIERIA ARRAUNLARI DANTZARI BAT

**Tolosa**



**BALLET SAIOA ZERKAUSIAN**

Dantzaren Nazioarteko Eguna-ren harira, dantza saioak gozatzeko aukera izan zen herenegun Tolosako Zerkausian, Gipuzkoako Dantzari Profesionalek Elkaritearen laguntzarekin. Hain zuzen ere, Donostia, Andoaingo eta Tolosako kultur taleretako dantza ikasleak aritu ziren ballet erakustaldia eginen Zerkausiko terrazan. Jende ugari gerturatu zen dantza emanaldia ikustera. »»»

**Asteasu-Orexa**



**SANTA KUTZ JAIK IGARO DIRA**

Festa giroan igaro dute asteburua asteasuarek eta orexarek. Santa Kutz jaiak ospatu baitituzte. Asteasu, Elizmendi auzoan izan da festa. Bertan, Simon kanpandorretik jaistearekin batera hasi zen festa larunbatean, eta igandera bitarte, eromeri, triktilari eta jolasek ez dute hutsik egin. Orexan, bestalde, ostegunean ekin zuten Santa Kutz jaiak. Lau egunetan zehar, haurrei nahiz helduei zuzendutako hainbat ekitaldi gozatzeko aukera izan dute, oilararen igoerak, festaren amaiera iragarri arte. Festa goiztiarenak amaitu dira, beraz, San Isidro eta Korpus jaiak lekuak emateko. »»»

**Zizurkil**



**ANDATZA EGUNA GIRO POLITEAN**

Usurbilgo Udalak eta Zizurkilgo Udalak, Andatza mendizale elkaritearen laguntzarekin antolatuta, Andatza Eguna ospatu da eta beste urte batera. Antolatzaileek azaldu-takoaen arabera, «eguraldiak nahikoa lagunduta, giro polita sortu da zizurkilarrak eta usurbildarren arteko festa honetan. Andatza mendiararen magalean». Hurbildu zen jendetzaren saila, prestatu zituzten pintxoak agurtu egin ziren. Bazkariaren ostean, gaztetxoek eta gurasoek ederki igaro zuten jokuetan. »»»

**Tolosa**



**KATALUNIARREKIN ELKARTUKEA**

Torrelles de Llobregat-eko (Herraldie Katalanek) haur eta gazteko dantzariak Tolosan izan dira asteburuan. Udaberri dantza taldearekin antolatutako elkartrukea dela eta, Larunbatean, guztiak elkarrekin bazkaldu eta gero, kalejira egin zuten, Berdura plaza aritzi arte. Bertan emanaldia eskaini zuten, Gipuzkoako dantzeekin nahiz Barzelonako ingurukoekin. Dantza saioak eskaintzeaz gain, bi taldeetako dantzariak elkar ezagutzera izan da helburua, eta baita kataluniarrek Tolosaldean ezagutzera ere. »»»

**Berastegiko bi mendi probak, «arrakastatsuak»**

Basurde elkarate antolaturiko Ibilaldi Neurtua eta guraso elkarate antolaturikoa egin dituzte asteburuan



**Iñigo Terradillos Berastegi**

Berastegi inguruak mendizale bete ziren herenegun. Batetik, Basurde elkarate antolatuta, XX. Ibilaldi Neurtua egin zuten, eta, bestetik, Berastegiko elkarate gaztetxo eta gurasoentzat mendi ibilaldi laburrak egin zuten. Bateko zehar beste antolatzaileak «oso gustura» agertu dira bi probek izan duten harrararekin, «egorriko surretako espak bete direlako».

Basurde elkaratearen proban 288 mendizalek hartu zuten parte. Eguraldiak lagundu zuen, eta antolatzaileez gain, mendizaleak ere pozik geratu ziren. Guraso elkaratearen ibilaldia ere kasuan, 100 parte hartzaile inguru izan zituen probak, horietatik 60 inguru gaztetxoak.



Berastegi inguruetan ikuspegi edereaz gozatzeko aukera izan zuten herenegun mendizaleak. | I. SAGAR / I. MURUA

**+Visión eta barre egin eskaintzei**

armazoiak + kristalak

**29€** tik hasita

**Gente con + VISION**

El fin de las gafas caras

Quien más gasta menos paga. Mas vision, mas vida. Mas vision, mas vida.

Quien más gasta menos paga. Mas vision, mas vida. Mas vision, mas vida.

Quien más gasta menos paga. Mas vision, mas vida. Mas vision, mas vida.



**Kirolak****↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

<b>LEHEN MAILAKO BANAKAKO TXAPELKETA</b>	
Begino-Barriola	13-22
Olaetxea-Albisu	22-21

**Hurrengo jardunaldia**Barriola-Martinez Irujo  
Olaetxea-Julen Retegi**BIGARREN MAILAKO BANAKAKO TXAPELKETA**

<b>Jauarena-Larrinaga (lesioa)</b>	
	22-0
Olazabal-Zabaleta	10-22

**Hurrengo jardunaldia**

Jauarena-Ibai Zabala

**GRAVN TXAPELKETA**

<b>Jubenilak, finala</b>	
Artola	22
Dario	8

**ARETO FUTBOLA**

<b>BIGARREN B MAILA 26. jardunaldia</b>	
Ebrosala-Laskorain	9-0

**Sailkapena**

1. Ebrosala	55p
2. Pinseque	51p
3. Zierbana	49p
13. Laskorain	19p

**HIRUGARREN MAILA**

<b>28. jardunaldia</b>	
Ibarra-Aurrera Vitoria	5-7

**Sailkapena**

1. Ibarra	69p
2. Sestao	68p
3. Aurrera Vitoria	59p

**FUTBOLA**

<b>ERREGIONAL OHOREZKOA 31. jardunaldia</b>	
Tolosa CF-Urola	1-0

**Sailkapena**

1. Anaitasuna	64p
2. Pasaia	58p
3. Oiartzun	58p
4. Tolosa	58p
5. Real Union	52p

**Hurrengo jardunaldia**  
Mondragon-Tolosa CF**ERREGIONAL PREFERENTEA****29. jardunaldia**

<b>Lehen taldea</b>	
Tolosa B-Ostadar	0-4

**Sailkapena**

1. Touring	72p
2. Ostadar	69p
3. Tolosa B	52p

**Hurrengo jardunaldia**

Martutene-Tolosa B

**Bigarren taldea**

Amaikak Bat-Intxurre

<b>Sailkapena</b>	
1. Lagun Onak	55p
2. Getariako Keta	48p
3. Zumaiaiko	48p
16. Intxurre	13p

**Hurrengo jardunaldia**

Intxurre-Mutriku

**SASKIBALOA****LEHEN MAILA**

Bidebide Ibiza	65
Ardoi Fundazioa	49

**Sailkapena**

1. Santurtzi	13-3
2. Leihoak Zarautz	11-5
3. Bidebide Ibiza	10-6

**Hurrengo jardunaldia**

Askartza-Bidebide Ibiza

**HARRIASOTZAILAK****GOROSTIDI HARRIAREN****TXAPELKETA**

<b>Sailkapena</b>	
1. Aimar Irigoien (Errezil)	21 jasoaldi
2. Jokin Eizmendi (Zarautz)	14 jasoaldi
3. Jexuxmari Iruretagoiena, Izeta III.a (Aia)	12 jasoaldi
4. Urtzi Telleria (Urnieta)	10 jasoaldi
5. Josetxo Urrutia (Leitza)	9 jasoaldi
8. Iban Ugartemendia (Hernalde)	9 jasoaldi

# Goreti Amonarrizek gutxieneko marka lortu du

Danok Danena halterofilia taldeko pultsulariak bikain aritu dira Gipuzkoako Txapelketan

**Erredakzioa** Villabona

Gipuzkoako Halterofilia Txapelketak jokatu ziren apirilaren 28an Villabonan, eta etxeko pultsulariek emaitza bikainak lortu zituzten.

Nesketan, Danok Danena halterofilia taldeko Goreti Amonarrizek lehen postua lortu zuen. Garaipen honekin, gainera, maiatzaren 30ean Xixonen (Asturias) jokatu den Espainako 17 urte azpiko txapelketara joateko gutxieneko marka lortu zuen Amonarrizek.



Danok Danena halterofilia taldeko Goreti Amonarriz. HITZA

Mutiletan, 56 kiloko mailan, Danenako pultsulariak lehen bi postuetan sailkatu ziren: Asier Zubeldia lehenengo gelditu zen, eta Lyan Edel Rodriguezek bigarren. 62 kilotan txapela jantzi zuen Kellyam Quintana izan zen. Sofyam Rochdi bigarren sailkatu

zen, eta Issam El Oikili hirugarren. 69 kilotan, Asier Gallego sailkatu zen lehen postuan, Koldo Sarachoren aurretik. 77 kiloko proban, Joseba Arrate izan zen onena. Banakako sailkapen orokorra Asier Gallegok irabazi zuen.

## Artola alegiarrak irabazi du Gravn Txapelketa, jubenetan

**Erredakzioa** Alegia

Gravn Txapelketaren finalak igandean jokatu ziren, eta jubenetan, Alegiako Inaki Artola izan zen nagusi. Azken partida, Dario errioxarraren aurka jokatu zuen alegiarrak, eta 22-8ko emaitzarekin amaitu zen lehia. Artolak 10 tanto lortu zituen sakez, eta pilotari abiadura handiagoa eman zion norgehiagoka guztian zehar. Dario oraindik kadetea dela aipatu beharra dago, nahiz eta maila handiko pilotaria izan.

## Oria taldeak Gipuzkoako Txapelketa irabazi du

Eskolarteko xake txapelketak jokatu dira Donostian; Anoetako ikasleak dominekin itzuli dira etxera

**Erredakzioa** Anoeta

Gipuzkoako Eskolarteko Xake Txapelketan Anoetako ikasleak bikain aritu ziren, apirilaren 28an eta 29an, Donostian. Larunbatean, banakako lehiak jokatu ziren. Oier Otxoak zilarrezko domina lortu zuen infantiletan, eta biga-

ren postu honekin Euskal Herriko Txapelketarako sailkapena eskuratu zuen. Iker Artola, alebinitan, zazpigarren gelditu zen, eta Iraia Otxoa hamabosgarren. Igandean, taldekako lehiak jokatu ziren. Oria taldea Anoetako Oier Otxoak eta Ekaitz San Sebastianek eta Villabonako Lander Vazquezek osatu zuten, Tolosako Mikel Aretxagarekin batera. Bikain jokatu ostean, Gipuzkoako Txapelketa irabaztea lortu zuten, baita Euskal Herriko Txapelketarako sailkatzea ere. Anoetako Udaletik guztiak zoriondu nahi izan dituzte.

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza** info**XIV Orduak probarekin!**

**tolosaldea.hitza.info** webgunean, XIV Orduak probaren atalean,

ibilbidearekin zerikusia duten albisteak dituzu eskuragarri: elkarrizketak, probaren xehetasunak, aholkuak...

- **Maiatzaren 23an gehigarri berezia** argitaratuko dugu HITZArekin batera; antolatzaileen hitzak, medikuen aholkuak, ibilbidearen nondik-norakoak, garai bateko argazkiak...
- **Maiatzaren 27an**, XIV orduen egunean, **HITZAK presentzia berezia izango du**; ... egunean zehar webgunean eta sare sozialetan ibilbidearen berri emango du momentuoro. ... San Migelen bertan presentzia izango du. ... gauean, proban parte hartu duten guztien argazkiak zintzilikatu ditu webgunean, nahi duenak eskuratu ditzan.
- **Maiatzaren 28an**, astelehenean, bezperako probaren inguruko **ale berezia** argitaratu eta banatuko du HITZAK eskualde guztian.

# Irigoienekin ezustekorik ez

Errezildarrak 21 jasoaldi eman zizkion 160 kiloko zilindro zaharrari Gorostidi Harriaren VI. Txapelketan

**I. Garcia Landa** Aduna

Gorostidi Harriaren VI. Txapelketa jokatu zen igandean eta ez zen ezustekorik izan. Tartean, Aimar Irigoien bada, zaila da bera ez den beste bat gailentzea, eta hala gertatu zen beste behin Adunan jokaturako txapelketan. Irigoienek 21 jasoaldi eman zizkion 160 kiloko zilindro zaharrari.

Bost minutuko txandan aritu ziren harrijasotzaileak eta errezildarrangandik urrun geratu

ziren besteak. Guztira hamabi kirolarik parte hartu behar zuten, baina Ostolatza, Galarraga eta Bellosok ez zuten parte hartu du Adunako txapelketan. Jokin Eizmendi zarautzarrak lortu zuen bigarren postua, 14 jasoaldi eginez. Izeta III.ak ere lan txukuna egin zuen eta hirugarren geratu zen, 12 jasoaldirekin.

Telleria izan zen laugarrena, 10 aldiz altxatuz harria. Horren ondoren, lau harrijasotzailek 9 jasoalditara berdindu zuten: Josetxo Urrutia leitzarra, Iban Ugartemedia hernialdetarra, Urpe eta Lertxundi. Azkena, zortzi jasoaldi eginez, Landarbide izan zen. Gutxienez hiru aldiz altxatu behar zen harria saria jaso ahal izateko, eta beraz, partaide guztiak bete zuten baldintza.



Aimar Irigoien, igandean, 160 kiloko zilindro zaharra altxatzen; nagusitasunez irabazi zuen. HITZA

Txapelketa nagusiaz gain, beste bi ere antolatuta zituen Muxkil elkarteak, biak esku bakarrare-

kin egin beharrekoak. Horietako bat bi eskuekin erabilitako 160 kiloko zilindro zaharra altxatu be-

har zen, eta bestean, 185 kiloko zilindro zaharra. Inork ez zuen parte hartu bi txapelketa horietan.

## Arruabarrenak ez du aurrera egin Madrileko Masters 1000 Txapelketan

**I. Garcia Landa** Tolosa

Lara Arruabarrena tolosarra Madrileko Masters 1000 Txapelketatik kanpo geratu da. Igandean jokatu zuen partida Agnieszka Radwanska poloniarrean aurka, txapelketako laugarren faboritua, eta 6-3 eta 6-1 galdu zuen.

Arruabarrenak txapelketaren antolatzaileek gonbidatuta parte hartu du. Tenislari tolosarrak *Twitter*-eko bere kontuan esan duenez, «pena bat izan da galtzea, baina esperientzia ona izan da. Lanean jarraitu behar da». Hurrengo erronka Roland Garros txapelketa izango da.

## Fernandezen ontziak postu bat galdu du Miamirako bidean

**I. Garcia Landa** Ibarra

Ez zaio ondo atera Xabi Fernandezek Team Telefonica ontziari hartutako estrategia, Volvo Ocean Race txapelketan Miamirako bidean egiten ari diren seigarren etapen. Haize gutxi dagoen gune batekin egin dute topo eta norabidea aldatu egin behar izan dute. Horrek hirugarren postutik laugarrenera jaistea eragin dio.

Atzo eguerdian horrela zegoen etapako egoera: Puma (Miamiatik 442,4 miliatara), Camper (+ 10,8 miliatara), Groupama (+78,3), Team Telefonica (+80,4), Abu Dhabi Ocean Racing (+99,2).

## Laskorain 2 B mailatik jaitsi da Zaragozan galdu eta gero

Ebrosalaren aurka 9-0-ko emaitza lortuta etxeratu dira tolosarrak; hirugarren mailan ariko dira datorren urtean

**Gorka Amatriain** Tolosa

2011-2012 denboraldiko azken jardunaldiaren neurketa Zaragozan jokatzeara egokitu zitzaion Laskoraini. Talde batekin izan dezakeen egoerarik zailenean izan zen partida; hil ala biziko gatazka, sailkapeneko liderraren aurka, jaitsiera zein txapeldunaren postuak jokoan eta etxetik kanpo jendez betetako harmaila batzuen aurrean. Garaipena lortzearen jomuga nekezak soilik libratu zitzaizkeen

horitxoak erreketaen postuetatik eta datu guzti hauen jakitun izanik igo ziren autobusera Javiren mutilak.

Neurketak ez zuen aparteko misteriorik izan, Ebrosala lider boteretsuak erraz menderatu zituen horitxoak 9-0-eko emaitza zabal bat eskuratuaz lehen minututik azkenengoraino nagusitasun osoz eskuperatutako norgehiagokan.

Lehen zatia 3-0 amaitu zen, hasiera batean atzean sendo aritzeko asmotan kantxaratutako ikasitako estrategia deslotzea erdietsi zutelarik aragoarrek. Bigarren erdiaren gidoiak ez zuen aldaketa nabarmenik jasan eta gainontzeko golak banan bana erori ziren denbora aurrera joan ahala. Azken 10 minutuetan

Javiren mutilek atezain jokalariren taktikarekin azken ahalegina egin arren 9-0ko azken emaitzak Ebrosala aragoarra 2.B mailako txapeldun handi izendatu zuen eta Laskorain berriz 3. mailako talde berria izango da.

Denboraldiari amaiera emateko modu alaiena ez den arren, ezin aipatzeke urte osoan zehar horitxoek erakutsitako borroka izpiritua, horren adibide gardena baita azken jardunaldira arte bururik makurtu gabe oilarrez betetako maila batean aritu izanaren errealitatea.

Kronika honetan eskerrak eman nahi zaizkie denboraldi osoan zehar taldea sostengatu duten zaletu ugariari, Usabalgo harmailtan bitzako giroa nekez ahaztuko baita.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



GOIZA	OSKARBI
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	31°
HOTZENA	20°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

**Agurrak**



**Manex Castro Zabaleta (Amasa-Villabona).** Indar eta maitasunez beteriko besarkadak zuretzat!  
Maite zaituztegu! Eutsi gogor! Geurea da garaipena!



**Zorionak osaba Koko!**  
Atzoko partez zorionak! Animo eta eutsi goiar!



**Urte askoan Manex!**  
**Manex Castro Zabaleta (Amasa-Villabona).** Eutsi gogor Manex! Wuitxu.



**Urte askoan Manex!**  
**Manex Castro Zabaleta (Amasa-Villabona).** Oraingoan ere kalabazak eman dizkiguzu! Hurrengoan kalamarrak zure kontu!



**Zorionak Peio!**  
Gailurra gertu daukagu, Lizartzako ezker abertzalearen partez.



**Urte askoan!**  
**Yaiza Beloki (Ugarte).** Gaur 8 urte.  
Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.